

ZAIREKO AHALGUZTIDUN OHIARI MAROKOKO HIRIBURUAN EMANGO ZAIO LUR,MOBUTUREN SENDIAK AZALDU DUENEZ

Mobutu Sese Seko hil da minbiziarekin, Rabateko ospitale militarrean

■ Mobutu Sese Seko, 32 urtez Zaire ohiko (Kongoko Errepublika Demokratikoa) lehendakari izan zena, hil zen herenegun Rabateko Mohamed V.a ospitale militarrean. Prostatako minbizia zuen duela urte batzuetatik Kongoko diktadore ohiak. Rabaten ehortziko dute behin-behinekoz.

Agentziak / Rabat

MOBUTU SESE SEKO zendu zen herenegun gauean, 66 urte zituela. Berrogei kilo besterik ez zituen hil zenean. Prostatako minbizia kolonera hedatu zitzaion eta bizi-organo ugari hondatuta zituen. Ekainaren 30ean eraman zuten Rabateko ospitale militarrean. Hara joan aurretik minbiziak eragindako barne odol-isuria gerarazteko ebaketa egin zioten Marokoko hiriburuko Avicennes ospitalean. Eta iaz minbiziaren kontrako tratamendua jaso zuen Nizan.

Zaireko lehendakari izandakoa Marokoko hiriburuan, Rabaten, ehortziko dute behin-behinekoz, senideek atzo azaldu zuten. Senideek ez zuten zehaztu hilerri kristauan ehortziko ote duten. Mobutu katolikoa zen eta hor ehozte litekeena da. Gainera, baliteke Mobutu behin-betiko geratzea Rabaten, senideek bost etxe erosi dituzte-eta hiriburuko Suisi auzo dotorean.

Senideek hori adierazi aurretik Laurent-Desire Kabila Kongoko lehendakariaren gobernuko bozeramaile batek esan zuen litekeena dela Mobuturi Kongoko Errepublikan lur ematea. Mobuturen nahia zen hil ondoren erre eta jaioterrian lur ematea. Hala jakinarazi zion Kabilari joan den maiatzean, Kongotik ihes egin eta herrialdea haren esku utzi zuten. Eskaera bera egin zion orain dela bi aste Soti Yalek, Mobuturen segurtasun zuzendari ohiak, Kongoko Errepublikako Barne Ministerioari.

Herritarren kontura aberastua • Mobutu 32 urtez izan zen Zaireko buru, eta tarte horretan herritar txiroenak bilakatu zituen Afrikako herrialde aberatsenetako bateko biztanleak. Herriaren kontura aberastu zen Mobutu.

Zaireko lehendakari ohi joan den maiatzaren 23an heldu zen Marokora, Laurent-Desire Kabilaren indarren aurka zortzi hilabetez borrokatu eta gero. Mobutuk amore eman behar izan zion Kabilaren Kongo-Zaireren Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzari (KZAIDA). Joan den maiatzaren 16an Zaireko hiriburutik ihes egin zuen Mobutuk, eta herrialdearen agintetza Kabilaren esku utzi zuen. KZAIDAKo buruzagiak Zaireko estatuburu izendatu zuen bere burua egun bat geroago, eta Zaireri Kongoko Errepublika Demokratikoa izena ezarri zion.

Zairetik Togoko hiriburura, Lomera, joan zen Mobutu maiatzaren 18an. Astebete geroago iritsi zen Marokora. Hassan II.a



Mobutu, Kinshasako aireportuan, joan den maiatzaren 14an. ERIC FEFERBERG EPA

erregeak Skhiraten, Rabatetik 25 kilometrora, duen jauregi alboko Antitrit hotelean egon zen. Marokoko agintariek jakinarazi zuten Mobuturen egonaldia «laburra» izango zela; izan ere, Mobutuk Frantziaren exiliatu nahi zuen. Baina Parisko Gobernuak ezezkua eman zion eta Marokoko agintariek Tangerrera eraman zuten.

Kongoko Errepublikan, lasai • Kongoko Errepublikako Gobernuak eta herritarrek lasai jaso

zuten Mobutu hil zelako berria. Kinshasa hiriburuko kaleetan herritarrek ez zuten inolako ekitaldirik edo adierazpenik egin.

Mundu zabalean erreakzioak ez ziren ugariak izan. Frantziako Gobernuak iturriek esan zuten Mobuturen heriotza «pribatua» zela, eta historiari dagokiola boterean egon zen urteetan egin zituen «gehiegikeriak» epaitzea. Parisek doluminak adierazi zizkion 32 urtez Zaireko agintetza izan zuen agintariaren sendiari. Jean Kuc Dehaenek, Belgika-

ko lehen ministroak, adierazi zuen Kongoko herriak epaituko duela Mobutu. «Haren agintaldiak hein batean egonkortasuna ekarri zion Afrikako Erdialdeari, baina Zaireko herritarrek sofritu besterik ez zuten egin». Bestalde, Portugalgo Mario Soares lehendakariak azaldu zuenez, «ez da Mobutu kritikatzeko unea. Errukitzeko garaia da. Isiltasuna da jarrera egokiena». Hala ere, eskertu egin zuen Angolako gatazkan Portugalgo eskaini zion laguntza.

Afrikako diktadore aberatsa

JOSEPH DESIRE MOBUTU Kongoko Lisala probintzian jaio zen 1930. urteko urriaren 14an. Ikasketak 1950. urtean amaitu zituen, eta 1956an *L'Avenir* egunkarian hasi zen idazten. *Actualités Africaines* izeneko argitalpeneko erredaktoreburu ere izan zen.

Karrera politikoa independentzia eskatzen zuen Kongoko Mugimendu Nazionalen hasi zuen, eta 1960an Bruselan parte hartu zuen Kongoko Errepublikaren subiranotasuna lortzeko negoziaketetan, eta 1961. urtean Kasabuvu presidentek Armadako buru izendatu zuen. 1965eko azaroan, Mobutuk Estatuko gidaritza hartu zuen Kasabuvu kargutik kenduz, eta 1970ean presidente aukeratu zuten zazpi urterako. 1977an eta 1984an berriro aukeratu zuten presidente. Bere agintean Mobutuk Kongoko Errepublika, Zairekoa izendatu zuen, eta bandera, moneta eta herrialdeko izenak aldatu zituen. 1990ean, nazioarteko presioen eraginez, Mobutuk Zaireko alderdi aniztasuna eta demokratizazioa iragarri zuen, baina 1997ko maiatzean amaitu zen Mobuturen 32 urteko diktadura.

Hogeita hamar urte iraun duen diktaduran, Mobutuk 8.000 milioi dolarreko dirutza bereganatu zuen. Iazko maiatzean Suitzako Gobernuak Mobutu Sese Sekoren dirua izozteko agindua eman zuen, baina jadanik oso berandu zen, Mobutuk ia diru guztia beste leku batean gorde baitzuen. X

DONOSTIAKO MUSIKA KONTSERBATORIOA

CONSERVATORIO DE MUSICA DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

1997 / 98 IKASTURTEA

HSAOL-ko MAILA ERTAINEKO SARBIDE PROBAK

Matrikulazio Epea: **Irailaren 8, 9, 10 eta 11**

Ordutegia: **9,00 ⇄ 13,00 • 16,00 ⇄ 18,00**

Proba egunak: **Irailaren 18 eta 19**

Argidibetarako: **DONOSTIAKO MUSIKA KONTSERBATORIOA**
Easo kalea, 45 • 20006 Donostia - San Sebastián
Telefono zkia.: 46 64 88

1997eko iraila

USURBILGO UDALA

FROGAK

Igeltsero lanpostua:
Irailaren 12an, ostirala, goizeko 9:30etan, Agerialde Ikastetxean.

Pioi lanpostua:
Irailaren 15ean, astelehena, goizeko 9:00etan, Agerialde Ikastetxean.

Usurbil, 1997ko irailaren 8an.